

## FRAI BARTOLOREN HIZKERA-BEREZITASUN BATZUEN INGURUAN

### 0. Sarrera

Fray Bartolome de Santa Teresa, edo beraren benetako izenez Bartolome Madariagailurretarikotzat dago, eta arrazoiz egon be. Markin-etxebarri eta Markinaren artean hartuak ditu sustraiak eta han garatuko bere da haren euskarazko emaitza guttia. Markinako karmeldarren komentuan egingo dauan egotaldi luzean, 1802tik 1820ra doan horretan, onduko ditu hari dakioguzan euskarazko dotrina-gaiok.

Artean euskarazko liburu asko argitara emon ez bazan be Bizkaiko partean, oinatz batzuk eginak ziran eleiz literaturan eta bizkai euskarako ereduaz. Giputz euskarako askoz antxina-gokoetara joan barik be, Añibarro frantzizkotarrak argitaratuak ziuan artean *Escu-Librua* (1802) eta *Lora-sorta espiritualala* (1803); nahiz Zarautzen bizi, bizkai hiztunentzat atonduak. Eta Fray Bartolo baino belaunaldi bat zaharrago zan Juan Antonio Mogel (JAMog) Markinan zan joako hiru hamarkadetan, eleizgizon eta euskalzale ezagun eta izentadua. Argitaraturik obra asko ez bazituan be, zabal ebilzan eleizgizon eta euskalzale eskolatuen artean haren eskuizkribuak. Honen eragina, eza-guera agirikorik egon ez arren, sustrai-sustraikoa izango da Bartolomeren idazkuntzan be, haren iloba Juan Jose eta